



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

GAZTETXOENTZAKO TRIKITIXA UDALEKUA ETA GAZTEENTZAKO TRIKITIXA TOPAKETA ANTOLATU DITU ELKARTEAK

TRIKITIXA UDALEKUA

2003 eta 2007 urteen artean jaiotako, hau da 11 eta 15 urte dituzten gatzetxoentzako udalekua da.

Egonaldia Asteasuko Otabardi aterpetxean izango da ekainaren 25etik 28ra. Egun horietan dinamikak eta hizketaldiak, gonbidatuekin elkarrizketak eta ikastaroak egingo dituzte. Uneoro hiru begirale egongo dira bertan. Aurtengo ikastaroak Ainara Saizar panderojoleak eta Ruben Isasi soinu-joleak emango dituzte, eta elkarrizketara gonbidatuak Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea Gozategi taldeko kideak izango dira.

Egonaldiaren prezioa 160 eurotakoa da, guztia barne. Plaza mugatuak dira eta **ekainaren 4a baino lehen** izena eman behar da trikitixa@trikitixa.eus helbidean.

GAZTEEN TRIKITIXA TOPAKETA

1998 eta 2002 urteen artean jaiotakoei eskainia dago, 16 eta 20 urte bitartean dituzten gazteei hain zuzen ere.

Egonaldi hau ere Asteasuko Otabardi aterpetxean izango da, ekainaren 28tik 30era. Elkarrekin giro ezin hobean egoteaz gain, dinamikak eta hizketaldiak, ikastaroa eta gonbidatuak elkarrizketatzeko aukera izango dute. Ikastaroa Harkaitz Allur soinu-jolearekin izango da eta elkarrizketa Los Zopilotes Txirriaos taldeko Eneko Dorronsoro eta Konejorekin.

Hemen ere plaza mugatuak dira eta izena eman behar da trikitixa@trikitixa.eus helbidean **ekainaren 4a baino lehen**. Prezioa 120 eurotakoa da guztia barne.

Informazio gehiago: www.trikitixa.eus



XABI EZAGUTUZ, HAMAIKA KONTUZ!

ELKARRIZKETA: XABI ARAKAMA

Nor da Xabi Arakama?

Zegaman jaiotako tipo geldiezin bat. Afizio asko eta gauza asko probatzea gustatzen zaion saltseroa.

Imajinatzen duzu zure egunerokotasuna trikitirik gabe?

Egie esan, denboralditxo bat iraungo nuke trikitirik gabe, hila-bete pare bat edo. Badakizu, atsedean hartzea ere komeni izaten da gero gogotsuago hartzeko. Baina ez, erabat utzita ez nuke etsiko.

Zenbat lagun liluratu ditu zure arrano belzdun instrumentu horiak?

Liluratu ez dakit, baina milaka batzuk ikusi eta entzun dute trikiti berezi hau... nazio askotan erabili dut eta bai, pentsatzen det bati baino gehiagori atentzia emango ziola honez gero.

Abesti eta bideo klip berria kaleratu dituzu Boikot taldearekin. Kontatu pixka bat.

Iaz garai hauetan Jarama izeneko bideo klip bat eta laburmetrai bat kaleratu genituen, non, Espainiako gerra zibilean errepublikanoekin batera beraien alde borrokan ibili ziren brigadista irlandarrei omenalditxo bat egiten zaien, beraien laguntza eta bizia eman zutelako. Boikot Vallecás-eko taldea da, eta Espainiako beste talde gehienak bezala, bideo klip berriak eta horrelako lanak apirila-maiatza inguruan kalera-tzen dituzte. Aurtengoan, "Hablarán las calles" izeneko abesti eta bideo klip honetan, La Raíz, Zoo, Aspencat eta Los Chikos del Maíz talde ezagunetako abeslariak parte hartu dute. Oso kantu borobila eta mardula da, hitz askoz osaturikoa, erritmo ezberdinek lagundurik. Gaia, egun bizi dugun estatuaren korrupzioa, justizia sozialaren gabezia, poliziaren jarduera biolentoa eta orokorrean, injustiziei buruzkoa da. Youtuben jarri genuen lehen 24 orduetan, 100.000 bisitatik gora izan zituen.



Sandstorm eta Madonnaren Hung Up bezalako abestiak trikitixarekin jotzen entzun zaitugu. Zer esango zenioke soinu txikiarekin edozer jo ezin daitekeela diotenei?

Eneko Dorronsororekin pare bat saio egiteko, eta edozer jotzeko gai izango dira...

Euskal Herriko zein plazatan ikusiko dugu hurrengo Arakama?

Iturmendiko plazan, baino oraingo honetan bateriarekin...

Tinte gorriak gehiago existituko ez balitz, zein koloretara aldatuko zenuke ilea?

Berez dudan kolorea utziko nuke: txuria

Zer du Zegamak beste herriek ez dutena?

Nere alabaren, nere arbasoen eta neronen sorterria dela. Bertakoa naiz eta bertan biziko naiz bizitza osoan ahal badut.

Gustura ikasiko zenukeen instrumentu bat?

Trikitixa. Askok dut ikasteko oraindik.

Ahaztuko ez duzun kontzertu bat?

Aurreko udan nere alabak lehen aldiz Boikotekin jotzen ikusi ninduen.

Amets bat?

Amesten jarraitzea eta ditudan amets guztietatik batzuk betetzea.

MAKETA LEHIAKETA 2018

Aurreko urteko arrakasta ikusita Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak aurten ere maketa lehiaketa martxan jartzea erabaki du. Egitasmo honekin, trikitixa ikasleak sorkuntzara animatu nahi ditu, eta bide batez, estudioko grabazioan esperientzia eskaini aukeratuak direnei.

Maiatzaren 14an bideoak jasotzeko epea amaitu zelarik, es-tilo eta mota ezberdinetako piezak jaso dira; bikoteka edo taldean, trikitixa eta panderoaz haratagoko taldeen proposamenak bildu dira aurten ere. Guztira 18 talderen pieza berriak gorde dira, batzuk bi edo hiru kantu eskaini ditzutelarik.

Zuzendaritzako kideek, maiatzaren 31an emango dute emaitzaren berri Elkartearen web orriaren eta sare sozialen bidez. Ondo bidean, aukeratutako 10 kantuen taldeek ekainean eta uztailean zehar Hernaniko Oh Brother estudioan euren sorkuntzak grabatzeko aukera izango dute, eta horretaz gain, kanturik gustukoeneri bideo klipa grabatuko zaio Errenteriako Katiuskakaren eskutik.

Txoko hau baliatuz Zuzendaritzak eskerrik beroenak eman nahi dizkie parte hartu duten guztiei. Biba zuek!

KOBAN

Koban taldea 2015. urtean Libe eta Onintzak sortutako taldea da. Gerora hainbat taldekide batu zitzaizkien, azkena Joseba; Dja izanik, elektronika erantsi zuen, taldeari daukan berezitasun handienetako bat emanez. Taldearen izen bera hartzen duen "elektro swing" estiloko diskoa 11 abestiz osatuta dago, non Rakel Areatza (ahotsa eta sintea), Joseba Salbide (elektronika), Xalba Ramirez (gitarra), Elixabete Beraza (pianoa eta koroak), Jone Laspiur eta Esti Beraza (koroak eta perkusioa) eta Onintza Rojas (trikitia eta ahotsa) diren taldekideak. Diskoa entzungai dago plataforma digital guztietan (Youtube, Spotify, Bandcamp,...) eta doako deskargarako link bat ere eskuragarri dago Koban taldearen web orrian. Ale fisikoak kontzertuetan lortu daitezke.



GOZATEGI

G puntua izenarekin kaleratu du bere estudioko zortzigarren lana 25 urte plazetan daramatzan Gozategi taldeak. Lehengo lanen bidetik doa 13 abestiz osatutako lan berri hau ere; trikitixa, fandango, vals, kalejira... denetarik aurkituko du entzuleak. Asier Gozategi trikitixarekin eta ahotsean, Iñigo Goikoetxea baxua, txarangoa, ukelelea eta ahotsean, Imanol Goikoetxea gitarra akustiko eta elektrikoak sartuz, David Gorospe bateria eta perkusioan, Iñigo Perona tronpeta, adarra eta irrintzietan, Asier Sarasola tronpeta eta tronboiarekin, Ainhoa Gozategi panderoa eta pandero elektrikoak sartuz eta Julen Alonso trikitiaren bigarren ahotsak eginez izanen dira disko berri honek jasotzen dituen artistak. Elkar argitaletxearekin grabatutako diskoa maiatzaren 25ean aurkeztu zuten Donostian eta aurkezpen kontzertua hurrengo egunean izan zen Oialumen. Aurrerago ere izanen da Gozategi taldearen kontzertuez gozatzeko aukera: ekainaren 9an Oletan eta ekainaren 16an Igorren adibidez.



AMATZAKO
4 TRIKITIXA
JAIALDIA

2018ko Ekainak 29, barikua - 20:00etan
San Martin jaiak lurretako Amatzu auzoan

Maddi Alberdi eta Olatz Alberdi
Epelde eta Lutxurdio
Asier Gozategi eta Julen Alonso
Gorka Valdes, Marina Ereña eta Julen Leturiondo
Andoni eta Iñaki
Xabier Etxaniz, Eneko Dorronsoro, Ainara Saizar, eta Konejo

AFARRKO TIKETAK (12€) lurretako Gauargi Tabernan eta Durangoko Plateruena Kafe Antzokian eskuragarri. eda enbeteke bidet: amatzatrikitixa@gmail.com/en (Ekainaren 24 soken eguna)

AMATZAKO IV. TRIKITI JAIALDIA

Laugarren urtez jarraian trikiti doinuek hartuko dute lurretako Amatzu auzoa. Ekainaren 29an ostiralarekin ospatuko da jaialdia arratsaldeko 20:00etan. Hauek izango dira parte hartzaileak:

- Xabi Etxaniz, Ainara Saizar, Eneko Dorronsoro eta Konejo
- Maddi Alberdi eta Olatz Alberdi
- Epelde eta Lutxurdio

- Asier Gozategi eta Julen Alonso
- Gorka Valdes, Marina Ereña eta Julen Leturiondo
- Andoni eta Iñaki

Jaialdiaren ondoren afaria izango da. Bertarako txartelak (12 euro) lurretako Gauargi tabernan, Durangoko Plateruena antzokian edo amatzatrikitixa@gmail.com helbidean erreserbatuta lortu daitezke.

JOSEBA TAPIA

"Munduko musika guztietara ireki ditugu geure buruak, eta munduko enpresa eta konpainia handi guztien kontra lehiatu behar dugu, gauza imposiblea. Gure bitartekoak korporazio handiek zuzentzen dituzte, eta ezin dugu hurbildu gure gazteen aurrera ere, multinazional handien musika kontsumitzen baitute, ez gurea. Gure musika kontsumitzekotan, kontzientzia izan beharko lukete, kritikoak izan, eta hau eta hura. Trikitilariok hilda gaude, ez daukagu lehiatzerik, euskararen munduak ere ez gaitu babesten".

Dantzan.eus 2018-02-20

**ARSEGUEL ETA ANGIOZARKO (OÑATIKO) SOINUJOLEEN ELKARTRUKEA**

Berrogei neska mutil elkartu dituen esperientzia honen lehengo zatia 2018 urte hasieran izan zen, Kataluinako Cerdanya bailarako soinu txiki joleak Euskal Herrira etorri zirenean. Maiatzean berriz, Angiozarko soinujoleak joan ziren Arseguel-era eta berriz elkartu direnean lehertu da festa. Liv Hallum eta Cati Planaren gidaritzapean soinua jotzeaz gain herri dantzak ikasiz, mendia, kantua eta soinu txikiaren museoa ere bisitatu dituzte. Esperientzia hau ez da ikasgai batzuk egite hutsa izan, guraso-ikasle-irakasle hirukian burututako ekimen bat baizik. Talló izeneko herrixkako emaldira bailarako jende ugari gerturatu zen, soinujole euskaldun eta katalanen arteko kimikarekin kontzertu berezia eskainiz.

GAITZERDI

Gaitzerdi erromeria taldeak beraien kantu berria "bizi momentua" grabatu du Oñati Bizirik 4 diskoan.

NAFARROA OINEZEKO KANTUA

Lohitzune Berastegi Trikititeens taldeko trikitilariak, urriaren hirugarren igandean Altsasun ospatuko den Nafarroa Oinezeko BIZI abesti berriaren grabaketan parte hartu du. Kantua eta bideoklipa ekaina hasieran argitaratuko dira.

**DENBORAPASA**

Aurkitu 7 ezberdintasunak!

TOMAS EPELDE**Nolatan hasi zinen gaztetan soinua jotzen?**

Aitak bere soinua zuen etxean, eta anaia zaharra hasi zen jotzen gurean lehendabizi. Gero ni hasi nintzen haren atzetik, zazpi bat urterekin, soinuari eusteko lain nintzela. Etxean soinua zegoelako hasi nintzen jotzen. Donostiako Larrinagatik alokairuan hartutako soinua zen aitarena. Salduta dut orain. Honezkero 100 bat urte izango ditu soinu hark. 21 botoiko soinua zen, 23 izan ordez. Diseñatzaileak falta zitzaizkion. (...) Ni gaztetan Martirietara joaten zirenei begira egoten nintzen: Sakabi zenari, Maltzeta zenari, Zendoia zenari, Lajari... han haiei entzun eta gero, etxean ikasten nuen, neure kasa. Belarriz atera behar izaten nituen orduan piezak. 17 urte bete baino lehen, falta zituen dieseak jartzera eraman nuen soinua Donostiako Larrinaganera.

Maxixatzen.eus 2018-03-16

IÑAKI GARMENDIA LAJA:

"Gure aita zenak jotzen zuen soinua, eta hura falta zenean, bere kutxatik atera eta harekin ikasi nuen zer bait jotzen, pieza bakan batzuk, aitari entzundakoak. Artean maisua etxera ekarri gabe nenbilen. Geroxeago, 17 urte nituela ekarri zidaten Elgeta, eta egin zituen hilabete batzuk gurean niri erakusten. Baina aitari ikasitako pieza horiek joko nituen Kostitako erromerian. Soinu ere zahar samarra zen hasieran, haize asko samar galitzen zuen bat. Geroxeago, 15 bat urte nituela, erosi genion Epelarri. Oraingo Epelarren aita zena zen, soinu-jotzaile polita, Elgetarekin ikasitakoa. Elgetaren tonukoa zelako erosiko genion, nik harekin ikasi nahi nuelako"

Bertsolari.eus 2018-02-27